

ETORKIZUNA MARRAZTUZ

Arlo soziala, ekonomikoa eta jasangarrita lehenesten dituen aurrekontu proiektua
Un proyecto de presupuestos para responder al presente y seguir trabajando con la mirada puesta en el futuro

Aurrekontuak **2023** Presupuestos



1.0 Aurkeztutako aurrekontua

proyecto de presupuestos que se presenta



PERTSONAK ARDATZ hartzen dituen aurrekontu soziala, errealista, zorrotza, egingarria eta jasangarria. Pertsonen beharrei erantzun, aurreikusitako proiektuak gauzatu eta berriak martxan jartzera bideratua.

Un presupuesto social, realista, riguroso, factible, sostenible y CENTRADO EN LAS PERSONAS. Dirigido a dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía, a ejecutar los proyectos previstos y a poner en marcha nuevas iniciativas.



Testuinguru aldakorrean landutako aurrekontu proiektua, ETORKIZUNA bermatuko duten oinarri sendoak jartzeko, orainari erantzunez, etorkizunera begira lanean jarraituz, etorkizunera begirako apustu estrategikoak eginez Tolosak aurrera egiten jarraitu dezan.

Un proyecto de presupuesto elaborado en un contexto cambiante, para establecer unas bases sólidas que garanticen el FUTURO, respondiendo al presente, trabajando con la mirada puesta en el futuro, haciendo apuestas estratégicas para que Tolosa siga avanzando.



Kalitatezko arreta eta zerbitzuak bermatzea helburu duen aurrekontua, arlo sozialean, ekonomikoan eta jasangarritasunean azpimarra jartzen duena, Tolosa hobe bat eraikitzen jarraitzeko, herritarrekin ELKARLANEAN.

Un presupuesto orientado a garantizar una atención y unos servicios de calidad poniendo el acento en el ámbito social, económico y en la sostenibilidad, para seguir construyendo una Tolosa mejor, EN COLABORACIÓN con la ciudadanía.

1.1 Lehentasunak

prioridades



ARLO SOZIALA TOLOSARRAS EN EL CENTRO

Pertsona zaugarrienak babestea; herritarren ongizatea bermatzea, zerbitzuen etengabeko hobekuntzan, inor atzean utzi gabe. Herri kohesionatuago eta berdinzaleago baten alde.

Proteger a las personas más vulnerables; garantizar el bienestar de la ciudadanía en la mejora continua de los servicios, sin dejar a nadie atrás. Por un municipio más cohesionado e igualitario.



EKONOMIAREN GARAPENA IMPULSO A LA ECONOMÍA URBANA

Hiri ekonomia indarberritzen jarraitzea, etorkizunera begira lanean jarraitzeko, Tolosak duen ehuna sendotuz, sinergia berriak bultzatuz, proiektu berriei bidea emanaz, ELKARLANEAN jarriz ekosistema osoa, indarrak batuz lehen sektoretik hasita, merkatari, ostalari, azokagile, sektore gastronomiko eta industria sektorea.

Continuar con la revitalización de la economía urbana para seguir trabajando hacia el futuro, consolidando el tejido existente en Tolosa, impulsando nuevas sinergias, dando paso a nuevos proyectos, facilitando la COLABORACIÓN de todo el ecosistema, aunando fuerzas entre el sector primario, comerciantes, hosteleros, feriantes, sector gastronómico e industrial.



JASANGARRITASUNA eta TRANSIZIO ENERGETIKOA SOSTENIBILIDAD Y TRANSICIÓN ENERGÉTICA

Klima aldaketaren erronka globalari tokikotasunetik erantzutea neurriak hartuz energia berriztagarrien eta trantsizio energetikoaren alde, eguzki plaka berriak eta udal eraikin zein kale argiterian led teknologiadun argiak jarritz.

Responder al reto global del cambio climático desde el ámbito local, mediante la adopción de medidas a favor de las energías renovables y de la transición energética, colocando nuevas placas solares y luces con tecnología led en edificios y alumbrado público municipales.

1.2 Igoera nabarmenenak

Principales incrementos

GIZARTE ZERBITZUAK / *Servicios Sociales*

200.000 € gehiago

guztira:

3,2
milioi

Zerbitzuen indartzea: etxez etxeko laguntza zerbitzua, familiei bideratutako programak, Abegi Etxean gau eta egunez bazterkeria egoeran dauden pertsonak artatzeko zerbitzu integral berria.

Fortalecer los servicios: servicio de asistencia domiciliaria, programas dirigidos a las familias, el nuevo servicio integral de atención diurna y nocturna en Abegi Etxea a personas en situación de exclusión.

1.2 Igoera nabarmenenak

Principales incrementos

GARAPEN EKONOMIKOA / *Impulso económico*

230.000 € gehiago

guztira:

1,2
milioi

Datorren urtean garrantzia berezia izango du ELIKERek, Kalitatezko Elikaduraren Zentroak, aurten ekindako bideari jarraipena emateko; larunbateroko azokak eta azoka bereziak indartuz eta proiektu berriak martxan jarriz, lehen sektoreari zein merkataritzari, gastronomia sektoreari eta industriari lotuta.

Tendrá especial relevancia ELIKER, el Centro de Alimentación de Calidad, para dar continuidad al camino emprendido este año; reforzando las ferias de los sábados y las ferias especiales, y poniendo en marcha nuevos proyectos, vinculados tanto al sector primario como al comercio, al sector gastronómico y a la industria.

1.2 Igoera nabarmenenak

Principales incrementos

BERDINTASUNA / *Igualdad*

80.000 € gehiago

guztira:

340.000 €

ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxeak atea zabalduko ditu 2023. urtean eta berriazko aurrekontua izango du Emakumeen Etxeko zerbitzuak eta jarduerak aurrera eramateko. Dirulaguntza berria ere sortu da bertan aurrera eramango diren ekintzetarako.

ANDRAGORA, la Casa de las Mujeres de Tolosaldea, abrirá sus puertas en el año 2023, y contará con un presupuesto propio para la prestación de servicios y realización de actividades en la Casa de las Mujeres. También se ha creado una nueva línea de subvenciones para las actividades que se llevarán a cabo en la casa a lo largo de todo el año.

1.2 Igoera nabarmenenak

Principales incrementos

KULTURA / *Cultura*

74.000 € gehiago

guztira:

3,7
milioi

Tolosak berezkoa duen berezitasuna, erreferentzialtasuna, herri-bizitasuna eta kultur jarduera babestu eta sustatzea, Tolosa bizi baten alde.

Kultur arloan ere laguntza berriak: Olentzaroren Basoa eta ToloFOLK jaialdia sustatzeko eta Tolosako Buruhandi eta Erraldoiak erosteko.

Proteger y promover la singularidad, referencialidad, vitalidad y actividad cultural propia de Tolosa, a favor de una Tolosa viva.

Nuevas ayudas, también, en el ámbito cultural: para promocionar Olentzaroren Basoa y el festival ToloFOLK, y para comprar los Cabezudos y Gigantes de Tolosa.

33,3 millones de euros para seguir construyendo una Tolosa mejor



3,2 milioi euro pertsonen egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko eta gizarte arreta bermatzeko.

Una Tolosa viva, dinámica con un tejido económico y social fuerte.



Tolosa jasangarriagoa, trantsizio energetiko eta energia berriztagarren eskutik.



Plan de Inversiones para seguir mejorando Tolosa y trabajando proyectos futuros.

1.3 Aurrekontua zenbakietan

presupuesto en cifras

Aurrekontua
Presupuesto

33.306.422 €

Foru Funtza / *Fondo Foral*: **16.236.528 €**

Eusko Jaurlaritza/ Gobierno Vasco: **1.600.750 €**

Berezko Baliabideak / *Recursos Propios*: **11.694.144 €**

Pasibo finantzieroak (gerakinetatik finantziatua) /

Pasivos financieros (financiación del remanente): **3.775.000 €**

Inbertsioak
Inversiones

4,1 milioi

1.4 Udala hiru arlo nagusitan el ayuntamiento en tres grandes áreas

ANTOLAKUNTZA

Udal eraginkorragoa, garai berrietara egokitutakoa eta eraldaketa digitalari aurre egingo diona, herritarren beharrei modurik egokienean erantzuteko, zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan.

Lograr un ayuntamiento más eficiente, adaptado a los nuevos tiempos y que avanza en la transformación digital para responder de forma más adecuada a las necesidades de las y los tolosarras en continua mejora de los servicios prestados.



LURRALDEA

Espazio publikoa eta udal eraikinak baldintzarik onenetan mantentzea eta herri jasangarriagoa sustatzea. Herriarentzat espazioak berreskuratu eta herriko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetu.

Mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones y fomentar un municipio más sostenible. Recuperar espacios para la ciudadanía y mejorar la accesibilidad y movilidad en Tolosa.


HERRITARRAK

Tolosarren bizi kalitatea hobetuko duten zerbitzuak eskaintzea; berdintasunaren, kohesio sozialaren eta integrazioaren alde, garapen ekonomikoa sustatuz, herri nortasuna babestuz eta komunitatea zainduz.


Ofrecer servicios que mejoren nuestra calidad de vida; promover la igualdad, la cohesión social y la integración; reactivar Tolosa y la economía urbana para proteger nuestra identidad local y la comunidad.

1.5 Nola banatzen da aurrekontua?


¿cómo se reparte el presupuesto?




Antolakuntza
8.969.903 €



Herritarrak
11.902.207 €



Lurraldea
8.256.526 €



Inbertsioak
4.177.786 €

Guztira **33.306.422 €** *en total*


1.6

Gastuen banaketa arloka

distribución del gasto por áreas

1.6


Antolakuntza / organización



8.969.903 € guztira, aurrekontuaren **% 26,93**

1.6

Herritarrak / ciudadanía



11.902.207 € guztira, aurrekontuaren **% 35,74**

1.6

Lurraldea / territorio



8.256.526 € guztira, aurrekontuaren **% 24,79**

1.6


Inbertsio nagusia

principales inversiones

1.6

676.000 € Udal eraikinen zaharberritzea / *Renovación de edificios municipales*

Gizarte Zerbitzuetako bulegoak.
Oficinas de los Servicios Sociales.



Hilerriko komunetan
irisgarritasuna bermatzeko
lanak. / *Obras para garantizar
la accesibilidad en los aseos
del cementerio.*



Emeterio Arrese, goiko solairua.
Emeterio Arrese, planta superior.



Zutani elkartearen lokalaren
berritzea. / *Renovación del
local de la asociación Zutani.*

**362.000€**

Urbanizazio lanak: Araba etorbideko
plazak, autobus geltoki berria
Zumarditxikia proiektuaren baitan...
*Trabajos de urbanización: las plazas de
Araba etorbidea, nueva parada de autobús
dentro del proyecto de Zumarditxikia...*

300.000€

Larramendiko auzo elkartearentzat
lokala erosi eta atondu.
*Compra y acondicionamiento de local
para la asociación de vecinos de
Larramendi.*

**469.000€**

Trantsizio energetikoa
(Eguzki plakak eta led argiak).
*Transición energética
(placas solares y luces LED)*

1.6


130.000€

Proiektu berrien idazketa:
Redacción de nuevos proyectos:

lurramendi pasealekuaren
berrurbanizazioa.
*Reurbanización de lurramendi
pasealekua*



Barrena kalearen
berrurbanizazioa.
*Reurbanización de
Barrena kalea.*



Antonio Lekuona eta Beotibar
kaleen berurbanizazioa.
*Reurbanización de las calles
Antonio Lekuona y Beotibar.*



Amarotzeko frontoiaren
estalkia. / *Cubierta del
frontón de Amarotz.*



Belar artifiziala Berazubín.
Hierba artificial en Berazubi.

100.000€

Arkauten mendizaleen
museo berria.
*Nuevo museo del montañismo
vasco en Arkaute.*



60.000€

Alde Zaharra
Biziberritzeko Plana.
*Plan de Revitalización
de la Parte Vieja.*



30.000€

Altueran aparkalekua
sartzeko azterketa.
*Estudio sobre
aparcamiento en altura.*



2.0



tolosätzen
AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

2.0 Herritarren proposamenak

propuestas ciudadanas

Berrikuntzak txertatu dira aurtengo aurrekontu parte hartzaileen prozesuan herritarren parte hartzea errazteko helburuarekin.

Bi fasetan garatu da prozesua. Lehen fasean, tolosarrek online eta aurrez aurre proposamenak egiteko aukera izan dute eta bigarren fasean, proposamenak teknikoki aztertu ondoren, bozketara pasatako ideia edo egitasmoen artean interesgarrienak lehenetsi ahal izan dituzte herritarrek.

Guztira, 213 proposamen jaso dira, 673 boto eta tolosarrek lehenetsitako proiektuak aurrekontu proiektuan jaso dira.

Se han introducido novedades con el objetivo de facilitar la participación ciudadana en el proceso de presupuestos participativos de este año.

El proceso se ha desarrollado en dos fases. En la primera fase los/las tolosarras han tenido la oportunidad de realizar propuestas de forma presencial y online, y en la segunda fase, tras un análisis técnico de las propuestas, la ciudadanía ha podido priorizar las ideas o proyectos más interesantes.

Se han recibido 213 propuestas en total, 673 votos, y los proyectos más votados han sido incorporados en el proyecto de presupuestos.

2.1

Prozesuan tolosarrek lehenetsitako ideiak

Ideas más votadas en el proceso de presupuestos participativos

		Botoak Votos
▶ Patinaje zirkuitoa, patinetan modu seguruan ibili ahal izateko	<i>Circuito de patinaje para poder practicar dicho deporte de forma segura</i>	146
▶ Arramele auzoan jolas-kirol gunea	<i>Zona ocio-deportiva en el barrio Arramele</i>	143
▶ Apustu-etxea ixtea	<i>Cierre de la casa de apuestas</i>	133
▶ Frontoi irekia-estalia Tolosako erdigunean pilotan aritzeko eta jolas gune gisa	<i>Frontón abierto/cubierto en el centro de Tolosa para jugar a pelota y como zona de juego</i>	114
▶ Alde Zaharra piztea	<i>Revitalizar la Parte Vieja</i>	78
▶ Haur parkeak hobetzea	<i>Mejora de los parques infantiles</i>	66
▶ Berazubitik Kondeaneko aldaparako konexioa hobetzea, baita eskailera mekanikoaren edo igogailuaren bidez ere	<i>Mejora de la conexión entre Berazubi y Kondeaneko aldapa incluso por medio de escaleras mecánicas o ascensor</i>	57
▶ Komunitate energetikoak eta eguzki plakak bultzatzea	<i>Impulsar las comunidades energéticas y placas solares</i>	54
▶ Gazte topagune zerbitzua eta nerabeentzako aisialdi aukerak zabaltzea	<i>Ampliar el servicio de Gazteen Topagunea y la oferta de ocio para adolescentes</i>	46
▶ Azken agurren etxea. Hileta zibilak egiteko leku publikoa	<i>La casa del último adiós. Un lugar público para la celebración de funerales civiles</i>	45

2.2

2023ko aurrekontuetan txertatutako herritarren proposamenak *Propuestas ciudadanas incluídas en el proyecto de presupuestos*

▶	Larramendiko jolas-kirol gunea sortzeko proiektua eta obra.	<i>Proyecto y obra para construir una zona recreativa deportiva en Larramendi.</i>	250.000€
▶	Haur parkeak hobetu eta mota eta tamaina ezberdinetako parkeen eskaintza zabaltzea.	<i>Mejorar los parques infantiles y ampliar la oferta de parques de diferentes tipos y tamaños.</i>	200.000€
▶	Tolosako erdigunean, pilota eta jolas-gune gisa erabiltzeko frontoi ireki-estalia sortzeko aukera. Azterketa.	<i>Posibilidad de construir un frontón abierto y cubierto para jugar a pelota y como zona de juegos en el centro de Tolosa. Estudio.</i>	20.000€
▶	Patinajea modu seguruan praktikatzeko eremua sortzeko azterketa.	<i>Estudio para la creación de un espacio para la práctica segura del patinaje.</i>	20.000€



mila
esker